

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko otsailaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

BIDEA BURUJABETZEN HERRITAR TALDEA ELKARTEAREN ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA.

Hernani Burujabe osatzen duten sektoreetako kideek **Bidea Burujabetzen aldeko herritarren elkarte**a sortzeko beharra identifikatu ondoren, 2022 urtean sortu eta 2023-2024 urteotan kontsolidatu dira. Hernani Burujabereren proiektuan parte hartzen duten pertonez osaturiko taldea denez, ez dago proiektuari buruzko antzeko ezagutza, zereginak eta funtzioak betetzen dituen inolako beste talderik Hernanin.

Hitzarmen honen bidez, ezinbesteko funtzioa duen eremu komunitarioa ordezkatzeko duen elkartearen lana bermatuko da. Horrez gain, herri proiektu honek behar dituen parte-hartze eta babes herritarra indartzeko, herritarren, eragileen eta erakunde publikoen arteko elkarlana bultzatzen jarraituko du.

Hitzarmenaren epea 2025/01/01 – 2028/12/31 bitartekoa izango da.

Hernaniko Udalak BIDEA Burujabetzen aldeko herritarren elkarteari 50.000 €-ko dirulaguntza emango dio 2025 urterako. Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroan, hain zuzen ere.

2025eko aurrekontu partida zenbakia: 1 2110.481.02.924.00

Baimendua: AD-247/2025

BIDEA Burujabetzen aldeko herritar elkarteak Hernaniko Udaletik jasotako diru-laguntza honako gastuei aurre egiteko erabiliko du: aholkularitza eta dinamizazioa eramango duen pertsonal laborala kontratatze, komunikazio ekintzak, sentsibilizazio kanpainak, herri ekimenak eta hitzaldiak egiteko, hala nola administrazio gastuak ordaintzeko.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko otsailaren 20ko bilkuran gehiengoan emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **GEHIENGOZ erabaki du**

Lehena.- Bidea burujabetzen aldeko herritarren elkartearen eta Hernaniko Udalaren arteko hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Erabaki honen berria interesatuei jakinaraztea.

Hirugarrena.- Erabaki honen berria Ogasunari ematea.

Laugarrena.- Lehenengo ordainketa egitea: 12.500 eurokoa.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen

8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko otsailaren 27an
Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU1d5d59c7-f4ac-4113-9d90-ef7de6592be0**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>